

# HIZKUNTZEN TRATAERA BATERATUA

## **HEGOALDE IKASTOLA I.P.**

Sebastian Albero, 2

31006 Iruñea

Tfnoa: 948152253

Faxa: 948151758

Posta-e: [ikhegoal@pnte.cfnavarra.es](mailto:ikhegoal@pnte.cfnavarra.es)



## AURKIBIDEA

1. HTB: hasierako erabakiak .....	4
1.1. Egitasmoaren sorrera .....	4
1.2. Hizkuntza Mintegia .....	5
1.3. Hasierako azterketa .....	5
2. HTB garatzeko formakuntza .....	9
3. HTB gauzatzeko gutxieneko definizioa .....	13
4. HTB Testuen mapa orokorrak .....	16
4.1. Testuen 1 mapa .....	16
4.2. Testuen 2 mapa .....	17
5. HTB Testuen azterketa .....	42
5.1. Testuen 3 mapa .....	42
5.2. Testuaren aztergaia .....	44
6. Hemendik aurrerako lana: Ipuina eta deskribapena .....	46
6.1. Jarritako lanak helburu orokor hauek ditu: .....	46
6.2. Aurrekoak suposatzen du, besteak beste, lana modu honetan antolatu dela: .....	46

### ERANSKINAK:

Izenaren Historia (Haur Hezkuntza)

Ipuin Fantastikoa (Lehen Hezkuntzako Lehenengo Zikloa)

Gure Pertsonai Gogokoena (Lehen Hezkuntzako Bigarren Zikloa)

Gertaera (Lehen Hezkuntzako Hirugarren Zikloa)

# 1. HIZKUNTZEN TRATAERA BATERATUA: HASIERAKO ERABAKIAK

## 1.1. EGITASMOAREN SORRERA

Egun Hegoalde Ikastola dena 1977-78. ikasturtean sortu zen Fuerte Principe, Iruñeko Udal Ikastola edo eta Hegoalde Udal ikastola izenekin. Orduetik hona irakaslearen talde esanguratsua finkoa izan gara eta bertan lanean aritu, sortutako proiektu guztiei iraunkortasun handia emanez. Elkarrekin lan egiteko ohitura garatu dugu eta hezkuntzaren berrikuntza ezberdinetan proiektu ezberdinak gauzatu ditugu ikastetxearen historian.

Azken ikasturteetan ikastolak urteroko formakuntza planetan toki berezia egin diogu Hizkuntzaren inguruko hausnarketari. Horrela, ILZ-CAPEk, bereziki, antolatu dituen Mintegi eta Ikastaroetan aktiboki parte hartu dugu UPOetan azaltzen den moduan.

Urteetako formakuntza teoriko-praktikoetan erabakiorrak izan dira M. Nemirosky, J. Dolz, Uri Ruiz edo eta M. Sainzen gidaritzan egin duguna. Ikuspuntu osagarriak edukita ere, aurreko aditu guztiek oinarrizko pentsakera profesionala komunikatu digute: hizkuntzaren balio funtzionala.

Ikasturte hauetan guztietan ikastetxeko ziklo guztietan material didaktikoak egituratzeko kultura sortu eta indartu da: testu zehatzen garapen osoak, osagarriak diren materialen azterketa edo ziklo barneko testuen sekuentzia didaktikoak.

Gauzak horrela, 2001-2002. ikasturtean agerian zegoen egoera hau zen:

- Hizkuntza (euskaraz eta gaztelaniaz) lantzeko sekuentzia eta baliabide asko eginak genituen eta erabiltzen ziren.

- Ekoizpena zikloetan zuen aztergune nagusia eta testu guztien alderaketa bertikalen premia zegoen, ziklo batetik besterako testuen arteko harremanak landu gabe zirelako.
- Ordura arte hizkuntza bakoitzak bere garapen propio zuenez, sarritan ez zen egokia testuen lotura hiru hizkuntzetan.

## 1.2. HIZKUNTZA MINTEGIA

Behar ziren berrikuntzak gauzatzeko ezinbestekoa zen, besteak beste, hiru Mintegi zirenak bakarra bihurtu eta helburu hauekin abiatu genuen:

1. Ikastetxean lantzen diren hiru hizkuntzen eremu komunei buruz hausnartu
2. Eremu komunetan trataera bateratua lantzen duten praktikak adostu
3. Irakaskuntza praktika orok hizkuntzen lanketarekin bat etortzeko eztabai-datu.

## 1.3. HASIERAKO AZTERKETA

Mintegiak bere lana abiatu zuen ikastetxean zegoen egoeraren azterketa eginez. Horretarako hiru eremu ezberdinetan banatu ziren gure errealitatea islatzen zuten ikuspuntuak: hezkuntza komunitatea adostasuna lortzen zituzten ezaugarriak, adostasuna lortzen zuten ezaugarriak baina gauzatzeko arazoak suposatzen zituztenak eta zalantza sortzen zuten zenbait arazo.

Labur adieraziz hauek ziren hiru eremuetako arazoak:

### 1.3.1. Hezkuntza komunitatean adostasuna lortzen dituzten ezaugarriak:

- Euskara hizkuntza ikasteko erabiltzen den metodoa murgiltze goiztiarra da. Haurrak ikastolan sartzen direnetik egiten dituzten jarduerak euskaraz dira eta horretaz arduratzen diren irakasleak elebidunak (euskara-gaztele-ra) izanik komunikazioa bermatzen da.
- Haur Hezkuntzan ingelesa lantzeko murgilketa egiten da irakasle espezialista euskaldunekin. Ahal den neurrian hirugarren hizkuntzan bizitzarekiko ezagutzak eta inguruarekiko edukiak lantzen dira.
- Murgilketa egiteko erabiltzen den hizkuntzan ahozotasuna bereziki lantzen da, baita zenbait erabilpen informalak eskolatu eta landuz.

- Lehen Hezkuntzan, hizkuntzen trataera formala hasten denean, gaztelera arloa sartzen da Bigarren ziklotik aurrera .
- Euskararen erabilpena sustatzeko jarduera ezberdinak lantzen dira: adin ezberdinen arteko ikasleen topaketak, irteerak eta kanpaldiak, euskarazko emankizunak ikastetxean, idazleekin solasaldiak, helduekin mintzaldiak eta, oro har, euskararen erabilpena eta motibazioa areagotzeko ekimenak
- Irakasle, langile eta ikasleekin euskara da komunikatzeko hizkuntza. Lan jarduerak, errotulazioa, barne idazkiak, txartelak, jaiak, eskolaz kanpoko ekintzak, jantokian eta besteetan euskara hobesten da. Gurasoekin eta erakundeekin, kasuz-kasu, euskara hutsean egiterik den guztietan eta bestela ele bitan .
- Eskolaz kanpoko jardueretan euskara da hizkuntza erreferentea, ikastolan egiten diren gainerako ekintzetan bezala.

### **1.3.2. Hezkuntza komunitatean adostasuna dute ere ezaugarri hauek baina gauzatzeko arazoak ditugu:**

- Hiru hizkuntzen arteko harremana planifikatuz landu behar da, hizkuntzen trataerak beharrezko duen batasuna azpimarratuz.
- Erabilpenarekin batera hizkuntzaren inguruko hausnarketak egiteko gaitasuna lantzen da, hizkuntza bakoitzaren baitan eta besteekin alderatuz ere.
- Irakurketa – idazketaren prozesuaren hastapena euskaraz egiten da. Ondoren gaztelera eta ingelesaren irakurketa- idazketak hizkuntza bakoitzak dituen tasun bereziak lantzea eskatzen du, ikasketa hauek guztiak erlazionatuz.
- Arlo guztietan, eta ez hizkuntzetan bakarrik, lanaren antolaketak espazio eta denbora tarte egokiak eskatzen ditu ikasleen parte hartze komunikati-boa garatzeko bai ahoz edo idatzizko testuetan.
- Arlo guztietan, ez hizkuntzetan bakarrik, zaintzen da ahoz edo eta idatziz testuen ulermena, galderak, zalantzak edo iritziak sortzeko gaitasuna, planifikatzeko joera, adierazpenaren egokitasuna.

### **1.3.3. Hezkuntza komunitatean zalantza sortzen duten arazoak:**

- Ikastolan hasterakoan haurrak gelaka jartzerakoan ez da kontutan hartzen H1a. Aniztasunaren izenean familia euskaldun, erdaldun- gehienak- edo

tarteko egoeretakoak elkarrekin jartzen ditugu. H1 gaztelera duten haurrekin lan berezia antolatzen da beraien maila nabarmenki arazoa denean. H1 euskara duten haurrekin ez da jarduera berezirik antolatzen beraien garapen linguistikoa arrunta edo urria denean, edo eta beraien hizkuntza eredua estandarretik urruti izan arren.

- Murgiltze metodologia erabiltzen dugu eta orain arte gure ikasleen H1 gaztelera edo euskara izan da. Azken urte hauetan gero eta nabariagoa da gure auzoan hego amerikarren komunitatea. Gurera etortzen hasi dira eta familian duten hizkuntza eredua beste gaztelera bat da, hemen estandarra den horretatik ezberdin.
- Euskarazko irakaskuntza inguru erdaldunean eginez behar bereziak dituzten ikasleekin hainbat arazo sortzen dira. Eduki ditugun esperientzietan intuitiboki jokatu dugu eta gelatik kanpo emandako laguntza euskaraz-gaztelera egiteko eztabaida kasuz kasukoa izan da.
- Adin ezberdinen arteko ikasleen elkarketak antolatzen dira zenbait jardueraginez. Adibidez:
  - Jolasak (handienek arauak, hizkuntza propioa ikasi eta txikiekin jolastu-erakutsi)
  - Jokoak(berdin)
  - Jai egunak (kalejiretan handiek txikien ardura hartzen dute).
  - Eguneroko lanetatik abiatzea ikusten da egokiena honelakoak egiteko, gelan egindakoa besteei komunikatuz (azalpenak, narrazioak,..)

Baliagarria ikusi da harremanak sortzeko, arduretan hezteko, mintzamina areagotzeko edo euskararen erabilpena handitzeko, baina arazo praktikoak handiak dira denbora berezia eskatzen duelako.

- Irakurketa – idazketaren hastapenaren prozesua euskaraz egiten da eta ondorengo urteetan gaitasun horiek garatzeko ulermen orokorra (euskararekin lotua), estrategikoa (irakur-idazketa gaitasunari dagokiona) eta espezifikoa(gaiari dagokiona) ez ditu lortzen nahi ditugun emaitzak. Ondorioz azken zikloan irakurketa -idazketa arloan arazoak dira hainbat ikasleengan.
- Azken urte hauetan hizkuntzek hartu duten garrantzia ikusita gainerako arloen espazio eta denbora larriki murriztu egin da. Hizkuntza ez da lantzen hizkuntzaren bidez, bizitzarekiko beharren bitartez baizik. Arlo guztien arteko oreka egokitzeko arlo bakoitzak hizkuntzekiko duen ardura berrikusi behar da.

- Atzerriko hizkuntzaren inguruan bi eztabaida sortu dira: zein (ingelesa eta ez frantsesa gure kasuan) eta noiz hasi (orain Haur Hezkuntzaren 2. Mailan). Bi eztabaidak oso baldintzatuak daude. Lehendabizikoan beste baliabide berriak jarri beharko zirelako, benetan zaila, eta bigarrena Nafarroako Gobernuak gero eta aukera gutxiago ematen dituelako curriculetan erabaki autonomoak hartzeko .
- Hizkuntzen hausnarketa ikasleekin egiterakoan ingelesa- gaztelerarekin alderatzeko jokia dugu eta ez ingelesa- euskararekin. Horrek zenbait zailtza sortzen ditu.
- Ikastetxean aurreko urteetan landu da Euskararen erabilpena sustatzeko Asmoa (EESA) . Barnera eta kanpora begira, erabilpen sinbolikoetan euskarak duen tokia zehaztu da eta asmoa eraginkorra izateko neurriak hartu dira ere. Hizkuntzen Trataera Bateratua HTB lantzeak EESA berrikustea suposatzen du eta Hizkuntza Proiektua gauzatzeko aurreko eztabaidak eta oraingoak uztartu behar ditugu.



## 2. HTB GARATZEKO FORMAKUNTZA

2002-2003 ikasturtean Hizkuntza Mintegian eztabaida zuzenduta egin genuen mintegikide guztien artean oinarrizko erizpideak komunean jartzeko.

Lanak ezaugarri hauek izan ditu:

- Vademecum publikoa osatu dugu irakasle guztiei zabalik.
- Materialak gure aholkularien bidez osatu ditugu .
- Materialak gaia edo eta ikuspuntua kontutan hartuz multzokatu dira.
- Eztabaida aldez aurretik hautatu diren materialekin egin da Mintegien bilertan.
- Ondoren material gehiago txertatu ditugu, vademecuma etengabe gaurkotzeko asmo lagungarriaz jaio zelako.

Hasierako vademécum honetan diren materialen laburpena honako hau da:

## 2.1. BILDUMA

Decálogo para una educación intercultural	Carbonell y Paris, Francesc	Hezkuntza zibikoa, interkulturala eta antiarrazista egiteko 10 arau nagusi
Hacia una cultura multilingüe de la educación	Ruiz Bikandi, Uri	Textos aldizkariaren 23. Alean agertzen diren artikuluen laburpena
Inmigrantes en la escuela	Siguan, Miguel	Egoeraren berri eta gizarte ireki eta solidarioaren baitan egin beharrekoak
Educar a Rahalia.	Martín, Deirdre	Gutxiengo lingüistikoekin lan egiteko hainbat burutazio (Britania Handian)
Enseñar lengua a niños inmigrantes	Marbà Mas, Teresa	Aniztasuna eta eskola aktiboa hizkuntzen trataera egiteko oinarriak
Enseñar a convivir , enseñar a comunicarse	Vila, Ignasi	Inmigratio eta hizkuntza, estereotipoak, eta arazo extralingüistikoekin garrantzia
Los aspectos de lo multicultural y su incidencia en el Área de Lengua	Marco, Aurora	Kontzeptu nagusien definizioa
¿De qué es tu bocadillo?	González, Vicenta	Aniztasun kulturala eta dagokion hurbilketa etnologikoa.
Etorkinen hizkuntza, atzerriko hizkuntza	Eguzkiza, M.José	Hizkuntzak ikasteko diren mitoak eta zenbait ppio.
Hizkuntzen trataera integratua	Eguzkiza, M.José	Aurrekoaren antzekoa. Bukarera etorkinen familiarekin eta haurrekin harremanetarako aholkuak
Erabileraren garrantzia hizkuntza berri baten eskurapenean	Artigal , Josep Maria	Bere proposamenaren oinarri teorikoa
La construcción de actividades significativas en L3 en la etapa infantil	Artigal , Josep Maria	Oinarri teorikoa eta egindako eskolako praktikak
El territorio indicial compartido: uso de una nueva lengua	Artigal, Josep Maria	Erabileraren gauzatzeke jarri behar diren baldintzen inguruko artikulua.
Secuenciación y organización de los contenidos educativos	Del Carmen, Luis	Artikulu klasikoa sekuentziak-signifikotasunari buruz.
Aproximaciones pedagógicas en la enseñanza de L2 a través de las matemáticas en la inmersión temprana	Arnau, Joaquin	Hizkuntza erakutsi baino edukiak lantzen dira hizkuntzetan eta ikasleengan oinarrituz eta ez irakaslearengan.
Adquisición de L2 a través de los contenidos.	Arnau, Joaquin	Aurreko ideia garatzen du eta hainbat tipologia deskribatu ere.

Perspectivas del aprendizaje en la educación trilingüe: procesos y factores de adquisición.	Arnau, Joaquín	Zazpi baieztapen orokor egiten ditu.
El proyecto lingüístico de centro	Ruiz Bikandi, Uri	Eztabaida egiteko bete beharreko urratsak
El proyecto lingüístico de centro	Ferrer, Montserrat	Ikastetxean erabakiak hartzeko behar dena.
Escola Andorrana	Darnés, Antonia	Bertan egiten ari diren berri jasotzen du
Kurtzebarri Eskola	Zenbait, Aretxabaleta	Beraien ibilbide luzea agertzen da: edukietan oinarriturik
El enfoque comunicativo	Areizaga, Elisabet	Proposamen didaktikoak
Planteamiento discursivo e integrado en un proyecto de educación trilingüe	Arano, Rosa M.	Oinarrizkoak diren 6 hipotesiak formulatzen ditu
Enseñanza trilingüe y desarrollo discursivo	Arano, Rosa M.	Oinarrizko 6 hipotesiak eta Txingudi Ikastolan egindako lanaren berri zehatzagoa agertzen da.
Plantamiento discursivo e integrador de un proyecto de educación trilingüe	Arano, Rosa M.	Artikulu osoa eta aurrekoaren antzekoa
Hirugarren hizkuntzaren irakaskuntza arlo baten bidez	Arano, Rosa M.	Aurrekoa osatuz: Plastika- Drama jardueretan
Una experiencia de didáctica y evaluación del discurso oral en primer ciclo de Primaria	Arano, Rosa M.	Testu tipo baten inguruan H2 lantzeko adibidea Eguberriak gaia izanik
Ingelesaren irakaskuntza Txingudi Ikastolan	Arano, Rosa M.	Lantzen diren 3 hizkuntzen arteko erlazioaz, besteak beste.
Txingudi Ikastolako Hizkuntza Plangintza	Arano, Rosa M.	Artikulu laburra.
La enseñanza de una L3 en un contexto bilingüe	Vila, Ignasi	Orokorra
Psicología y enseñanza y aprendizaje de una lengua extranjera	Vila, Ignasi	Orokorra
El diseño de unidades didácticas en L2 mediante tareas	Estaire, Sheila	Gaiak aukeratu eta ondoren Unitateak egiteko urratsak zehazten ditu.
Aprendizaje temprano de lenguas extranjeras	Cenoz, Jasone	Orokorra
Ideaciones sobre la didáctica de lenguas extranjeras..	Llobera, Miquel	Konstruktibismotik ideia nagusien deskribapena
Modelos y enfoques en la enseñanza de lenguas extranjeras	Font, Julia	Metodologia ezberdinen deskribapena eta azterketa
Algunas reflexiones en torno a la enseñanza de la lectura en L3 en una escuela bilingüe	Darnés, Antonia	Esperientzia praktikoa bat

## 2.2. BILDUMA

Hezkuntza eleaniztasunari buruzko V. Nazioarteko Jardunaldiak. 2001eko urriak 25-25	Matilde Sainz	Hitzaldian agertzen ziren faktoreak bilakatzen ditu
De la competencia comunicativa a la pedagogía comunicativa del lenguaje	Michael Canale	Artikulu teorikoa. Gai nagusia: gaitasun komunikatiboen osagaiak eta hortik datozen aholkuak. (Azken atal hau pragmatikoagoa)
Mecanismos de regulación de las actividades textuales: estrategias de intervención en las secuencias didácticas.	Bernard Schneuwly	Oso zehatza sekuentza tipoak garatzeko: errelato historikoa, gida turistikoa.
Géneros y progresión en la expresión oral y escrita	Joaquin Dolz	Aurkezpen orokorra, garbia, eta txukuna. Gaitasun-generoen kuadro sinoptikoa eskaintzen du eta testu argumentatiboaren sekuentzia bat ere.
Observaciones iniciales sobre la planificación del aprendizaje lingüístico.	Carmen Rodríguez Gonzalo	Oinarrizkoa. Curriculum proiektua gauzatzeko eta eman beharrezko urratsak.
Debate con jóvenes: interlocución, tema y tarea	L.M.Larringan	Gai hori bereziki garatzen du.
Hizkuntza didaktikaren erronka berriak	Matilde Sainz	Interesgarria. Ikuspuntu orokorra elenazitasunaren aurrean.
Hizkuntzaren curriculuma Genevako kantoian	Begoña Ociok itzulita	Testu generoareen karakterizazioa (gaztelaniaz)
Murgiketarako irakaslearen eginkizuna komunikazio-elkarrekinzetan	Iñaki Blain	Bigarren hizkuntzan ikaslea laguntzeko hainbat hausnarketa egiten ditu.
Hacia una pedagogía del texto	Bernard Schneuwly	Dolzek eta beste sarritan aipatu dituzten ideiak agertzen dira argi eta garbi.
EOLE-EVLANG		Material berezia . KD.

## 2.3. BILDUMA

Hizkuntzen irakaskuntzaren ikuspegi bateratzailea AURKITZEN proiektuan	R.M.Arano	Orokorra eta osatua.
Formación del profesorado: nuevas necesidades para una nueva época	Uri Ruiz Bikandi	Orokorra. Eleaniztasuna, inmigrazioa, irizpide orokorrak
Inmigración, educación y lengua propia	Ignasi Vila	Eleaniztasuna eta emigrazioa.
La gestión del proyecto lingüístico de centro desde una perspectiva ecológica.	Pilar Sagasta Matilde Sainz	Orokorra: elebakartasunetik-aleaniztasunera
Irakasleen gogoeta. Eskuhartze didaktikoa hizkuntzen irakaskuntzan	Marian Bilbatua Matilde Sainz eta beste	Hausnarketa. Behaketa- berrikuntzak lotzeko proposamenak
Un modelo de gestión ecológica de las lenguas en un centro de Ed. Primaria	Pilar Sagasta Matilde Sainz	Behaketa- berrikuntzak lotzeko proposamenak.

### 3. HTB GAUZATZEKO GUTXIENEO DEFINIZIOA:

Aurrerago aipatu dugun bezala, ikastolan ikuspuntu diskurtsiboa lantzen ari ginen azterketa teoriko-praktikoen bidez. Urteetan formakuntza jasotzerakoan koherentziaz hautatu dugun ildoak testuala izan da, alde batetik, eta ikastetxean sortu edo eta egokitu ditugun materialak ere bide beretik jo dute. Beraz, HTBaren definizio orokorra egiterakoan gutxieneko adostasuna formulatzerakoan ez dira arazo gehiegi agertzen.

Baieztape orokorrak honako hauek dira:

- Gure gizarteko aniztasun kulturala eta linguistikoak erronka berriak jartzeko dizkio eskolari eta orain arteko paradigmak zaharkituak agertzen dira. Eskola aniztasunari modu positiboan egin behar dio aurre, gizarterako aurrerapausoa dela erakutsiz.
- Eskola gatazka kulturaletan agente eraginkorra izan behar da gizartearen kohesioa lantzeko dituen ardurak hartuz.
- Eskolara ere aldakortasunaren garaiak iritsi dira eta aurreko garaietan finkoa eta erabateko ematen zuena, etengabeko dinamismoa erakusten du.
- Eskolak Hizkuntza Proiektuetan jaso behar du hizkuntzekiko aniztasuna eta curriculum propio sortu hizkuntzen papera planifikatuz, bereziki gure kasuan bezala, hizkuntza minorizatuak diren eremuetan.
- Ikaslea eleanitzak gaitasun eta arazo bereziak ditu eta ezin da berarekin orain arteko harremana eduki: ikasle eleanitza ez da ikasle elebakarraren gaitasunen batuketa. Eleanitza den pertsonaren gaitasun komunikatiboak bere eguneroko hizkuntzen erabilpenaren arabera da.

- Ikuspuntu honek suposatzen du eleanitza den pertsonarengan bere gaitasun komunikatiboetan dinamismoa dela eta ez dagoela jokaera aditiborik .
- Beraz, hizkuntza ezberdinak curricularki lantzen direnean kontutan hartu behar dira, logikaz beraien arteko bide independenteak osatzerik ez dagoelako.
- Diskurtsoan oinarritutako curriculunak aukera ematen du hizkuntza ezberdinen arteko gaitasun estrategikoak garatzeko gutxieneko baldintza hauek bete ondoren: irakaskuntza eraginkorra izanik, ikasleen motibazioa aktibatuz eta hizkuntzaren erabilera posiblea eginez.
- Hizkuntzen artean transferentziak egiteko antolaketa didaktiko egokia asmatu behar da: programazioa bateratu behar da hizkuntzetan eta zenbait kasuetan gainerako arloetan. Besteak beste, honek suposatzen du lan bera ez dela hizkuntza guztietan errepikatzen.
- Hizkuntzen artean erabaki behar da zein hizkuntzan eta noiz lantzen den zein testua eta nola eta noiz lantzen den testu hori gainerakoetan. Hizkuntzen artean testu bakoitzaren diakronia eta sinkronia aztertu behar da eta esplizitoa egin.
- Euskara hizkuntza minorizatua den neurrian testu-generoak, orohar, lehentasunez landuko dira: euskararen ezagutuko dira eta ondoren ingelesa eta gaztelanian.
- Egoera eleanitzetan metodologia malguen aldekoa gara. Hainbat kasuetan hizkuntza proiektuen bidez lantzen da, gainerako zenbat arlo inplikaturik, eta beste batzuetan prozesuak hizkuntza arloetan lantzen dira.
- Jarduera testual guztiak komunikatzeko asmoa eduki behar dute hasieratik eta horrela bizi behar du ikasleak bere ahaleginen zertarako, norentzat, zer, noiz, eta beste jakinez.
- Ikaslearengan esanguratsutasuna lantzen da egiten duen lanaren kontrola eduki dezan: egin aurretik, egiten ari dela eta bukatzerakoan.
- Testuak lantzerakoan jardueren sekuentziak gutxieneko urratsak jarraitzen ditu bai ahoz edo idatzizkoetan: girotze lana eta aurkezpena, ezagutza, ereduaren aurkezpena eta lanketa, ekoizpena, hausnarketa eta bukaerako ekoizpena .
- Irakasleak gero eta ardura handiagoa hartu behar du lana arloen artean eta irakasle ezberdinekin koordinatzeko. Horrek suposatzen du, besteak beste, Hizkuntzen Mintegi bakarria egitea eta gainerako arloetan ere kontutan hartzea hizkuntzen programazioa.

- Irakasleen formakuntza eta esperientzien elkar trukaketa areagotu behar da hainbat eta hainbat kasuetan bitartekoak asmatu behar direlako. Irakaslea ezer baino lehenago ikertzaile izan behar da, taldean lan egitera bere burua behartuz.
- Hizkuntzen irakaskuntzan programatuko dira ahozko eta idatzizko testuak ulertzeko eta ekoizteko, egiteko eta hausnartzeko lantzen direla, betiere kontestuetara egokituz.
- Testu tipologia aukeratzekoan Dolz- Schneuwlyren tipologia oinarritzat hartzen dugu baina moldaketak eginez. Testua- ahoz nahiz idatzizkoa-, betiere, erabilera eta ekoizpen unitaterik egokiena da hizkuntzen irakaskuntzan.
- Diskurtso generoak hizkuntza guztietan berdintsuak dira, baldintzak eta estruktura antzekoa edo berdina dutelako, programazioa bateratua egiterakoan ezinbesteko ezaugarria izanik.
- Eskola espazio ia bakarra da hizkuntza minorizatua lantzeko eta horrek dakar testu-generoak identifikatu eta planifikatzekoan kontutan hartu behar direla ez ohikoak diren hainbat funtzio komunikatibo .
- Testu tipologia horretan hainbat nabardura egiten dira ahozkoasuna eta eleaniztasunaren egoeretan agertzen diren behar komunikatiboak jasotzeko. Zalantzen aurrean praktikotasuna izan da irizpidea .
- Ahalegin berezia egin behar da ahozkoasuna eta egoera informaletan gertatzen diren prozesuak identifikatu eta didaktikoki lantzeko. Gutxien lantuta dagoen arazo honek eragin handia du adin txikiko ikasleengan,
- Testu-genero bakoitzean atal berdinak kontutan hartu behar dira: komunikazio egoerak, testu-antolaketa, antolatzaileak, kohesioa, arlo lexikala edo eta puntuazioa.

## 4. TESTUEN MAPA OROKORRAK

### 4.1. TESTUEN 1. MAPA

2002-2003 ikasturtean ikastolan lantzen ziren testu guztien mapa jasotzen da. Lan honek helburu hauek ditu:

- Irakasle guztiek ikastolan lantzen diren testu guztien berri eduki, irakasle bakoitzak duen ikuspuntu murrizta gaindituz.
- Hizkuntza ezberdinetan lantzen diren testuen egoera ezagutu.
- Erabiltzen diren material eta sekuentzia guztiak (eginak direnak, bertan moldatu direnak, erabat berri sortu direnak) jaso.
- Maila guztietan lantzen diren testuak agertu.
- Ikastolan lantzen diren hiru hizkuntzetako testuen berri eman.
- Zenbait testuetan trataera globalizatua lantzen denez horren aipamena egin.
- Testuen kategorizazioa egiterakoan erizpide malgua erabili.
- Oharretan interesgarriak izan daitezkeen berriak erantsi.

Beraz, hau izan da lehendabiziko hurbilpena mapa orokorra osatzerakoan. Txosten honetan ez dugu jasotzen ondorengo mapetan hurbilpen zehatzagoa egingen delako.



## 4.2. TESTUEN 2 MAPA

2003-2004 ikasturtean aurreko urtean egindako testu guztien mapa aztertzen da. Lan honek helburu hauek ditu:

- Testu tipologia bateratu egiten da J. Doltzen proposamena jarraituz.
- Aurreko tipologiai Deskribapena gehitu, arrazoi praktiko garbiak direlako.
- Hizkuntza ezberdinetan aurreko urtean sortu diren aldaketak txertatu egindakoa gaurkotuz.

Hona ekartzen dugun 2.Mapa honetan bi atal bereizten dira:

- Laburpena: bertan agertzen dira era sinoptikoan honako ezaugarriak:
  - o Diskurtsoak: Narrazioa, Kontaketa, Argudioa, Azalpena, Deskribapena
  - o Testuak: aurreko bakoitzaren baitan lantzen diren testuak.
  - o Sekuentzia: Testuak zein zikloetan lantzen diren.
- Testuen fitxa: testu mota bakoitzari lotua deskribapen orokorra egiten du honako ezaugarriekin:
  - o Diskurtsoa, testua, zikloa, izenburua
  - o Edukiak: testu horren ezagutza azkarra eta laburbildua emateko
  - o Ahoz- idatziz: lantzen den
  - o Hizkuntzak: zein hizkuntzetan lantzen den (euskara, ingelesa, gaztelania)
  - o Sekuentzia: noiz lantzen den eta zein sekuentzian

Ondoren esandako mapa da.

DISKURTSOA	TESTUA	HAUR HEZKUNTZA	LEHEN ZIKLOA	BIGAREN ZIKLOA	HIRUGARREN ZIKLOA
------------	--------	----------------	--------------	----------------	-------------------

### NARRAZIOA

(Denbora pasarako fikzioa)

	IPUIN MIRESGARRIA	X	X	X	X
	ALEGIA	X			
	KONDAIRA				X
	MITOA	X			
	ABENTUREN ISTORIA	X			X
	BIOGRAFIA				X
	FIKZIOZKO ESKUTITZA				X
	NARRATZEKO KOMIKIA	X	X		X
	ANTZERKIA	X		X	X

### KONTAKETA

(Bizi izandakoa gogoratzeko)

	ESPERIENTZIEN KONTAKETA	X		X	
	BIDAI KONTAKETA	X			
	PASADIZOA			X	
	AURKEZPEN ESKUTITZA		X		X
	KONTAKETA ESKUTITZA	X		X	
	AUTOBIOGRAFIA-IZENA	X	X		X
	BIOGRAFIA			X	

### (Gertaeren berri emateko)

	GERTAERA				X
	BERRIA	X		X	X
	ERREPORTAJEA				X

### (Iraganetik ikasteko)

	KRONIKA HISTORIKOA				
	HORMAIRUDI ILUSTRATUA				
	BIOGRAFIA HISTORIKOA				

DISKURTSOA	TESTUA	HAUR HEZKUNTZA	LEHEN ZIKLOA	BIGARREN ZIKLOA	HIRUGARREN ZIKLOA
------------	--------	----------------	--------------	-----------------	-------------------

### ARGUDIOA

(Jokaera ezberdinen artean eztabaidatzeko)

ARGUDIO ELKARRIZKETA	X	X	X	
EZTABAIDA ARAUTUA				X
IRITZI TESTUA				X
ZUZENDARIARI ESKUTITZA				X
ESKAERA ESKUTITZA	X		X	
PUBLIZITATEA		X		

### AZALPENA

(Ezagutzaz jabetzeko)

HITZALDIA		X		X
AZALPEN TESTUA	X			
MAPA	X			X
TXOSTEN ZIENTIFIKOA				X
ESPERIMENTSU BATEN AZALPENA	X			
DEFINIZIOA				X
GIDA TURISTIKOA				X
HORMAIRUDIA				X
ESKEMA				X

(Ekimenak bultzatzeko)

KONTSIGNAK	X			
ERAIKITZEKO AZALPENA	X		X	X
ERREZETA	X	X	X	X
ARAUA	X		X	
ERABILTZEKO MODUA			X	
PUBLIZITATEA			X	

DISKURTSOA	TESTUA	HAUR HEZKUNTZA	LEHEN ZIKLOA	BIGARREN ZIKLOA	HIRUGARREN ZIKLOA
------------	--------	----------------	--------------	-----------------	-------------------

DESKRIBAPENA					
DESKRIBAPENA			X		X
DESKRIBAPEN ZIENTIFIKOA			X		X
PERTSONEN DESKRIBAPENA				X	X
TOKIEN DESKRIBAPENA				X	X
DESKRIBAPEN MIRESGARRIAK					X

### LABURDUREN OHARRAK:

\* Parentesirik gabeko zenbakiak hurrenkera adierazten dute:

- 1.go Ahozko euskara hizkuntza
2. Ahozko ingelesa hizkuntza
3. Ahozko gaztelania hizkuntza

\* Haur Hezkuntzako 1, 2 eta 3k (parentesi artean azaltzen direnak) Haur Hezkuntzako 1.go, 2. eta 3. Mailak azaltzeko erabiltzen diren laburdurak dira.

\* Lehen Hezkuntzan (parentesi artean azaltzen diren zenbakiak) mailak azaltzen dituzte.

Adibidez: (1M) esan nahi du Lehen Hezkuntzako 1.go maila

Diskurtsoa	EDUKIAK	ahoz			idatziz		
		eus	ing	gazt	eus	ing	gazt
<b>NARRAZIOA:</b> <b>IPUIN</b> <b>MIRESGARRIA</b> <b>HH</b> <b>Irakasleak ikasleei</b> <b>narratzen die.</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Hiztegia/egiturak landu.(Eus-ing)</li> <li>Irakasleak ipuinaren irakurketa egin (Eus-Ing)</li> <li>Ipuin ezagun baten izenburuaren irakurketa</li> <li>Sekuentziatutako irudien interpretazioa ondoren ordenatzeko.</li> <li>Pertsonaia edo ipuinen izenburu zerrenda bere irudiekin erlazionatu</li> <li>Ipuin ezagun baten izenburua idatzi</li> <li>Hutsuneak dituen testu literarioa osatu</li> <li>Ipuinaren egitura landu.</li> </ul>	1 (1,2,3)	2 (2,3)		1(3)		
<b>NARRAZIOA :</b> <b>IPUIN</b> <b>MIRESGARRIA</b> <b>LH 1</b> <b>Liburuxka bat osatu</b> <b>gelako ipuin</b> <b>guztiekin</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>1.maila:Egitura orokorraz jabetzea: izenburua</li> <li>hasiera/gertaera/bukaera</li> <li>Hasiera eta bukaerako esamoldeak</li> <li>2. maila:</li> <li>1.mailakoa gehi:</li> <li>pertsonaien deskribatzea eta antolatzaileak</li> </ul>	1 (1M)			2 (1M)		
<b>NARRAZIOA:</b> <b>IPUIN</b> <b>MIRESGARRIA</b> <b>LH 2</b> <b>(3)Bertsoetan</b> <b>oinarrituz, ipuinen</b> <b>hasierak asmatzea</b> <b>eta ikasle</b> <b>zaharragoei ematea.</b> <b>(4) Ipuinak ekoiztea</b> <b>eta udan irakurtzeko</b> <b>liburu bat egitea.</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>(3-4)Estruktura eta atalak.</li> <li>Izenburua</li> <li>Hasierari dagozkion atalak zehazki bereizi: noiz, non, pertsonaiak, nolakoa eta egoera.</li> <li>(4) Garapenaren ekintzak ordenatzen ikastea.</li> <li>Narrazio antolatzaileak: denborazkoak, erritmo aldatzekoak.</li> </ul>	1 (3M)			1. (3M)		
<b>NARRAZIOA:</b> <b>IPUIN</b> <b>MIRESGARRIA</b> <b>LH 3</b> <b>*5urte-1go.</b> <b>mailakoei</b> <b>kontatzeko</b> <b>*Ongi pasatzea</b> <b>irudimena landuz</b> <b>*Gertaera batetik</b> <b>sortutako ipuina</b> <b>(Ikusitako</b> <b>gertaera eta</b> <b>ipuinaren arteko</b> <b>konmustaduraz,</b> <b>aldizkarirako ipuin</b> <b>bat sortzea)</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ipuina adinari egokitu</li> <li>Ipuinak duen estruktura</li> <li>Elementu magikoa-bukaera zoriontsua.</li> <li>Erregistro aldaketa. (ahozkera, abiadura, entonazioa, gorputz adierazpena, arreta erakartzeko errekurtsioak)</li> <li>Elementu fantastikoak aztertu eta sortzea.</li> <li>Istoriaren elementu antolatzaileak (denbora,kausala eta adbersatiboak)</li> <li>Autozuzenketa egiteko urratsak.(koherentzia, hitzen errepikapena, puntuazioa eta ortografia)</li> <li>Ipuinak duen estruktura kinariora birpasatzea</li> <li>Gertaeraren barnean dagoen istorioa kronologikoki ordenatzea.</li> <li>Narratzaile eta ikuspuntu ezberdinen aztertzea.</li> <li>Estilo zuzena eta ezuzena berrikustea</li> </ul>	1 (5M)			1 (5M)		2 (5M)
					3 (6M)		

Diskurtsoa	EDUKIAK	ahoz			idatziz		
		eus	ing	gazt	eus	ing	gazt
<b>NARRAZIOA: ALEGIA HH Irakasleak ikasleei narratzen die.</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Hiztegia/egiturak landu.</li> <li>Irakasleak ipuinaren irakurketa egin</li> <li>Ipuin ezagun baten izenburuaren irakurketa</li> <li>Pertsonaia edo ipuinen izenburu zerrenda bere irudiekin erlazionatu</li> <li>Ipuin ezagun baten izenburua idatzi               <ul style="list-style-type: none"> <li>Sekuentziatutako irudien interpretazioa ondoren ordenatzeko.</li> </ul> </li> <li>Ipuin ezagun baten izenburua idatzi</li> <li>Hutsuneak dituen testu literarioa osatu</li> </ul>	1 (1,2,3)	2		1(3)		
<b>NARRAZIOA: KONDAIRA- Ipuin Historikoa LH 3  Inguruen historia gaien landutakoaren bidez erromanoen garaiko istorio bat asmatzea.</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Narratzaile eta ikuspuntu ezberdinak berrorritzea.</li> <li>Estilo zuzena eta ezuzena berrorritzea.</li> </ul>						1 (6M)
<b>NARRAZIOA: MITOA HH Irakasleak ikasleei narratzen die.</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Hiztegia/egiturak landu.</li> <li>Irakasleak ipuinaren irakurketa egin</li> <li>Ipuin ezagun baten izenburuaren irakurketa</li> <li>Sekuentziatutako irudien interpretazioa ondoren ordenatzeko.</li> <li>Pertsonaia edo ipuinen izenburu zerrenda bere irudiekin erlazionatu</li> <li>Ipuin ezagun baten izenburua idatzi</li> </ul>	1 (1,2,3)	2		1 (3)		
<b>NARRAZIOA: ABENTUREN ISTORIOA HH Irakasleak ikasleei narratzen die.</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Hiztegia/egiturak landu.</li> <li>Irakasleak ipuinaren irakurketa egin (Eus-Ing. Batzuetan)</li> <li>Ipuin ezagun baten izenburuaren irakurketa</li> <li>Pertsonaia edo ipuinen izenburu zerrenda bere irudiekin erlazionatu.</li> </ul>	1 (1,2,3)	2 (2,3)		1 (3)		
<b>NARRAZIOA: ABENTUREN ISTORIOA LH 3  Exploratzaile batek egindako eguneroko bat.</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Egunerokoak duen berezitasuna berrorritzea.</li> <li>Egunerokoaren ezaugarriak birpasatzea.</li> <li>Lehen aldia lantzea.</li> </ul>					2 (6M)	
<b>NARRAZIOA: BIOGRAFIA- Asmatutako egunerokoa LH 3  Irla batean egonik eguneroko bat asmatzea</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Egunerokoak duen berezitasuna lantzea.</li> <li>Denbora adierazteko erabiltzen diren formak lantzea.</li> <li>Ohiturazko orain aldia birpasatzea</li> <li>Testuarekin lotuta dauden adjektiboak ikasi eta birpasatzea.</li> </ul>					1 (6M)	

Diskurtsoa	EDUKIAK	ahoz			idatziz		
		eus	ing	gazt	eus	ing	gazt
<b>NARRAZIOA:</b> <b>BIOGRAFIA-Asmatutako makinaren txostena LH 3</b> <b>Txosten baten egon daitezken testu mota ezberdinak lantzea</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Txostenak dituen atal bereziak birpasatzea.</li> <li>Deskribapen teknikoak dituen ezaugarri propioak berrorritzea.</li> <li>Biografian agertu behar diren datu esanguratsuak aztertzea.</li> <li>Kronologia eta bitxikeriak adierazteko ordenatzeko errekurtsuak lantzea.</li> </ul>						1 (6M)
<b>NARRAZIOA:</b> <b>FIKZIOZKO ESKUTITZA LH 3</b> <b>Ingeleraz eskutitzak dituen ezaugarriak berrorritzea</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Espazio antolaketaren berezitasunak oroitzea.</li> <li>Agurra ezberdinak lantzea.</li> <li>Lehen aldia lantzea.</li> </ul>					1 (6M)	
<b>NARRAZIOA:</b> <b>FIKZIOZKO ESKUTITZA-AGENDA LH 3</b> <b>Asmatutako asteburuaren planifikazioa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ekintzak idatziz planifikatzeko errekurtsuak lantzea.</li> <li>Geroaldia lantzea.</li> <li>Denbora markak lantzea .</li> </ul>					1 (6M)	
<b>NARRAZIOA:</b> <b>NARRATZEKO KOMIKIA. HH</b> <b>Gertaera baten prozesua agertzea.</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ezaugarrietaz jabetu</li> <li>Marrakia eta testuen arteko loturaz jabetu</li> <li>Gertaera ezagun baten inguruan komikia osatu.</li> <li>Irudia eman ondoren testuak idatzi Biñetak eginak emanez egin.</li> </ul>	1 (1,2,3)	2 (2,3)		1 (3)		
<b>NARRAZIOA</b> <b>KOMIKIA LH 1</b> <b>Marrakia emanda, komikien testua osatzea</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>1.maila:</li> <li>Marrakia eta testuen arteko loturaz jabetzea eta tankera zuzenaz idatzea</li> <li>2.maila:</li> <li>1. mailakoak gehi testu honen elementu esanguratsuenak : ikono eta onomatopeiak.</li> <li>Plastikan lantzen da.</li> </ul>				1 (1M)		1 (2M)
<b>NARRAZIOA:</b> <b>KOMIKIA LH 3</b> <b>*Erakusketa bat antolatzea</b>  <b>*Aldizkarirako komiki bat sortzea</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Narratziotik komikira erregistro aldaketa</li> <li>Komikiak duen hizkuntza berezia landu(irudizkoa eta idatzizkoa)</li> <li>Plastikan lantzen da.</li> <li>Narratziotik komikira erregistro aldaketa berlantzea</li> <li>Komikiak duen hizkuntza berezia (irudizkoa eta idatzizkoa) berrorritzea</li> </ul>				1(5M)		2(6M)

Diskurtsoa	EDUKIAK	ahoz			idatziz		
		eus	ing	gazt	eus	ing	gazt
<b>NARRAZIOA : ANTZERKIA HH</b>  <b>Gela bateko lagunek beste gelako lagunei eskaintzen die.</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Hiztegia/egiturak landu.</li> <li>Istoria ezagun baten antzerkia egin (Eus-Ing batzuetan)</li> <li>Gai edo rola emanik esketxak asmatu.</li> <li>Ahokapena, entonazioa eta gorputz adierazpena landu</li> </ul>	1 (3)	2 (3)				
<b>NARRAZIOA: ANTZERKIA LH 2</b>  <b>Antzerki bat antzeztea</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Testua egokitu</li> <li>Pertsonaiak banatu</li> <li>Abestiak asmatu edo moldatu</li> </ul>	1. (3. M)  2. (4.M)			1. (3. M)  2 (4. M)		
<b>NARRAZIOA ANTZERKIA LH 3</b>  <b>*Beste talde bati antzeztea</b>  <b>*idatzitako antzerki bat irakurtzea</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Antzerkia idazteko era berraztertu.</li> <li>Ahokapena,abiadura,entonazioa eta gorputz adierazpena .</li> <li>Antzerkiak duen estruktura propioa birpasatzea</li> <li>Ikasturtean zehar ikasitako hiztegi eta egiturak birpasatzea.</li> <li>Ahokapena ,entonazioa eta erritmoa lantzea.</li> <li>Antzerkiak duen estruktura propioa birpasatzea.</li> <li>Antzerkiaren gidioa egiteko aurrepausoak ezagutu eta lantzea.</li> <li>Gidoiak dituen bereiztasunak lantzea</li> <li>Ahokapena ,entonazioa eta erritmoa lantzea.</li> </ul>		1 (5M)  2 (6M)			1 (5M)	3 (6M)
<b>KONTAKETA ESPERIENTZIEN KONTAKETA HH</b>  <b>Besteen aurrean bizipenak kontatzea eta besteenakentzutea</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Norberaren kontaketa ekoizteko.</li> <li>Besteen haria jarraitzeko</li> <li>Txandak gordetzeko.</li> <li>Denbora kontzeptua lantzeko (iragana-geroa,,, goizean, arra..)</li> </ul>	1 (1,2,3)	2 (2,3)		1(3)		



Diskurtsoa	EDUKIAK	ahoz			idatziz		
		eus	ing	gazt	eus	ing	gazt
<b>KONTAKETA: ESPERIENTZIEN KONTAKETA LH 2</b>  <b>Nahiak adieraztea</b>  <b>Jateko gustuak adieraztea</b>  <b>Urtaro gustukoena eta urtaro horretan egin daitezkeen ekintzak kontatu.</b>  <b>Kontatu zerk beldurtzen nauen eta zerk ez</b>  <b>Nire burua (adina), nire ikastola eta gustuko eta ez gustuko dituan arloak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Jostailuen hiztegia</li> <li>Want (nahi ) aditza</li> <li>Hormairudi bat egitea</li> </ul> <ul style="list-style-type: none"> <li>*Janariaren hiztegia</li> <li>Like-don't like egitura lantzea.</li> <li>Hormairudi bat egitea</li> </ul> <ul style="list-style-type: none"> <li>Orain aldia lantzea Baietz eta ezezko egiturak</li> <li>Urtaroak.</li> <li>Hormairudi bat egitea</li> </ul> <ul style="list-style-type: none"> <li>Hiztegia (monster,spiders,ghosts...)</li> <li>Hormairudi bat egitea Hormairudi bat egitea</li> </ul> <ul style="list-style-type: none"> <li>Like- don't like egiturak birpasatzea</li> <li>There´s-There are egiturak birpasatzea.</li> <li>Arloak lantzea.</li> <li>Asteko egunak birpasatzea.</li> </ul>		1 (3M)			2 (3M)	
			1 (3M)			2 (3M)	
			1 (4M)			2 (4M)	
			1 (4M)			2 (4M)	
			1 (4M)			2 (4M)	
